

EKUADOR OLDARREAN



LARRUN #247

INDIGENEN OLATU BERRIA

EGILEA | **JUAN GOROSTIDI BERRONDO**
AZALA | **JOSEBA LARRATXE, JOSEVISKY**

Kontinente bat zabalegia da edonorentzat, lur osoaren dimentsioa izan baitu beti. Lur horretatik harago zabaltzen dira ozeanoak eta zeruak, eta infinituaren nahiz transzendentzia ororen sinboloa den ortzi-muga. Hor da Amerika – Abya Yala, bertako jatorrizko herrientzat– eta unibertso horretan Ekuadorrek leku berezia bete lezake, ez soilik munduaren “gerrian” kokatua delako, baita ere ipar-hego tentsio- eta dispersio-gune gisa ere uler dezakegulako. Estatu amerikarren independentzien garaian “Kolonbia handiaren” parte izatera bultzatu

zuten batzuek, eta Peruren parte bihurtzera besteek. Aldamenekoen ondoan “txikia”, kontraste handiak gordetzen ditu alde guztietatik: Andeatako herriak, Amazoniako eta kostako kulturak; desertua eta oihana, hiru mila metrotik gorako hiriak eta itsas tropikalak; jatorri guztietako jendartea, jatorrizko herriak, indigenak, populazioaren zati nabarmena eta, batez ere, egituratuena, sozialki indartsuena. Joan den urriko herri-altxamen-
duak normalean kontuan hartzen ez ditugun zantzuz beteta heldu zaizkigu. Horra zantzu horietan arakatzeko zenbait arrasto.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.667 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABLOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2019ko azaroaren 24a

Turista, kolono ala misiolari?

Hilabetetik gora behar izaten zuten garai bateko itsasontziek Europatik Ameriketara heltzeko; denbora luze bat baliabide murriztekin, neurriz kanpoko sakoneko, indarreko eta apetzako bitarteko bat zeharkatzeko: ozeanoa. Ulertzekoa zen, beraz, orain zientoka urte onik ailegatzen zirenak, beren buruak lurrera bota eta, haren misterioaren edo ikaragarriaren pean, hutsaren hurrengo sentitzea.

Asko aldatu da pertzepzio hori Madrilen edo Parisen hegazkina hartu eta, ordu batzuen bueltan, New Yorkeko edo Buenos Aireseko aireportuan lurreratzen denarentzat. Gorputzak sumatzen du desplazamendu bortitz horren kolpea, baina *jet lag* izen itsusiarekin konformatzen gara.

Gauza guztiok jakinda baina, pentsatu gabe abiatu nintzen hiru hilabetez Ameriketara, Madrildik New Yorkera lehenik; handik Antilletara gero, Ekuadorrera jauzi egin aitzin. Jakina nuen kontinente aldaketa oro, denboran barrena egin-dako bidaia ere badela; aldaketa gehiegi elkarren ondoan: altitudetz eta latitudetz desplazatua dagoeneko, nirea ez zen denbora bateko inpresioz beteriko ingurune batean barneratzea behartzen ninduela sumatzen nuen lehen unetik. Turista kontzientziatuaren sindromeaz jota, gainera, debekatuak nizkion neure buruari hotelak edo lurralde bat ezagutzeko turisten zirkuituak. Cuenca hirian nengoen, eta ez beste nonahi, hango lagun batek bere etxean hartuko ninduelako; eta ez nintzen handik mugituko, ez bazen bertako edonork egiten zituen bidaia ohikoez beste. Bertan paseatuz, azoketan bazkalduz edo hango

liburutegira edo antzokira hurbilduz, orain 100 edo 200 urteko Europako girotik zerbait ukitzen nuela sumatzen nuen, baina hori ez zen errealitate garaikidearen alde bat baino. Hango parte zaharra, kolonia garaiko arkitekturaz josia dago; garai bateko patioak, auto-aparka-

lekuak bilakaturik, hori bai. Aldi berean, zapatariek, okinek, jostunek, abokatuak ala mekanikoek kale-mailan zabaltzen dituzte lantokiak eta, behin baino gehiagotan, bertan dute bizilekua, altura bakarreko edo biko antigoaleko etxeetan. Aro digitala ailegatu izan ez balitz bezala,





500 URTEKO LAPURRETA. Natur baliabiden ustiaketa da Ameriketako jatorrizko herritarren arazorik handienetakoa.

kale guztietan aurkitu litezkeen telefoniazko denda mordoek inpresio hori gezurtatuko ez baligute.

Lehengo gonbidapenari jarraituz, fardelez inguratutako xaman batekin hartu nuen mendirako bidea, autobusez. Indio itxurarik ez bazuen ere, prefektura hautatu berriak sustaturiko gazte topaketak izango zuen azken erritua zuzentzera zihoan. 2.500 metroko altuera zuen “behealdetik” 500 bat metro altuago zegoen mendialdera gindoazen, eta paisaia ere aldatuz zihoan: landa soroak eta belazeak, eukaliptoen plantazioekin tartekatzen ziren lehen mailetan. Gorago, ezezagunak zitzaizkidan espeziez beteriko oihan primarioa, baina baita etxolak eta baserriak ere; behiak eta zaldiak. Busa herrixka batean utzi eta jendea eta kargak garraiatzera dedikatzen ziren *pick-up* auto

-taxi batean sartuta, berehala amaituko ziren errepide asfaltatuak eta,



**HIRU KOKALEKU
HORITATIK –INDIGENENA,
EUSKAL KOLONOENA,
MISOLARIENA–
NIRE JARRERA ZEIN OTE
ZEGOEN HURBILEN...
ARTEAN, DOAN ESKAINI
ZIZKIDATEN MODU SOTILEI
ETA MEDIZINA INDARTSUEI
BEREN LANA EGIN
ZEZATEN UTZI NIEN**

pare bat aldiz galdu ondoren, iritsi ginen gazteen topagunera, 100 me-

troko ur-jauzi baten pean kokatua. Berrehun bat izan ziren lau egunez elkartuak, Jibones ibarrekoak eta Cuenca hiriburukoak. Gibelean genuen ur-jauzi hura Kimsakotxatik zetorren, inguru oso zabal baten ur emarien parajetik, eta topaketa hark uraren defentsaren izena zuen goiburu “Yaku Wambrakuna” kitxuaz, “Ura” eta “Gazteak” hitzak elkarrekin. Antzerki musikatu bat ari ziren gauzatzen une hartan, eta topaketa haiek laburbiltzen zituen manifestua irakurriko zuten gero: “...aztertu dugun errealitateak tristuraz eta etsipenez betetzen gaitu, baina errebeldeak gara, gure arbasoek hainbatetan bezala, esperantzaren hazi, urgentziaz behar ditugun sakoneko aldaketen alde borrokatzeko prest... Gazteok ez dugu onartuko praktika politiko dekadentea, non kontzientziak

salerosten diren zenbait txanponen truke. Ez dugu onartuko ere borroka sozialen erabilera plataforma politiko gisa. Gure politika ulertzeko era doitasunean eta etikan oinarritzen da, eta dei egiten dugu helburu komunak bilatzen duten borroketan parte hartzera, hauen adierazpideen, mobilizazioen eta kulturen aniztasuna onartzuz. Horrela bilakatzen da artea, kontzientzia eta borroken sendotasunaren muin". Harritu ninduen hitz hauen tonuak, heldutasunak. Ondoren, pare bat orduz luzatu zen erritua: lur haietako lau hazi nagusiz zoruan marraztutako "txakana" zabal bat, gurutze erregular eta lauki baten gainezarpenez osaturikoa, kolorez beteriko mandala. Lau adarretako bakoitzean, mundu zabalerako eta Izpiriturako ate bana; sua, kantua, dantzak, isiluneak... Amaitzeko, "pampa mesa" deituriko otordu komunitarioa: lurrean zabaltzen den oihal luzean barreiatzen dira janari guztiak eta bertan eserita hartzen du bakoitzak behar duena, eskuz.

Yaku ("Ur") hitza oso presente zegoen inguru hartan, eta izentzat hartu berria zuen prefekturarako hautatu berri zen lehen indigenak. Azken sei urteetan ECUARUNARI elkarteak presidentea izana, Ekuadorreko mendialdeko kitxua herriek azken mende erdian duten konfederazio nagusiarena. Nire lagunek hitz egina zidaten gizon hari buruz: Azuay eskualdeko prefeta berria nabarmendua zen azken hamarkadetako uraren defentsarako borroketan; bost aldiz atxilotua eta Ekuadorreko indigenen artean pertsona ezagunenetakoa, baita inguruko Andeetako jatorrizko herrialdeen artean ere. Posible izango al zen bera-ekin hitzordu bat lotzea? Bai, posible zen, ateak zabalik zeuzkan egoitzara hurbildu eta idazkari bati eskaria eginenez. Yakuk asteko bi egun oso erabiltzen ditu berarengana hurbiltzen den edozein talderekin elkarriketa zuzenentzako, eta horien arteko zirrikitu batean hartuko ninduen.

KITXUA, XUAR ETA BESTE HAMAIIKA



Ekuadorren 14 nazionalitate daude, eta oraino bizirik dirauten beste hainbeste hizkuntza, UNICEFen 2008ko informearen arabera. Kitxua da hedatuena, Kolonia eta Peruko Andeetan ere egiten dena, gutxira bi milioi eta erdi eledunekin. Xuar taldekoak Amazonian bizi dira, Ekuadorren eta Perun, eta 80.000 inguru izanik, erdiak baino gutxiagok erabiltzen dute xuar hizkuntza. Askoz ere tamaina apalagoan geratzen dira gainontzekoak, asko desagertzeko zorian (awapita, tsafikia, kaiapa, siona, sekoia, zaparoa...).

2008ko Ekuadorreko Konstituzioak espresuki errekonozitzen ditu haien eskubideak, laugarren kapituluaren 21 artikuluan ondo xehatuz: "Identitateak, antzinako tradizioak eta berezko dituzten erakundeak mantendu eta sustatu behar dira" (57.1). "Haien lur komunitarioak zatiezinak eta besterenezinak dira" (57.4). "Inoiz aldaketa planak sustatzen badira, kontsultak bideratu beharko dira" (57.7). "Heziketa interkulturala eta elebiduna sustatu beharko da" (57.14). Hizkuntzak, beraz, ofizialki

errekonoizituak dira eta teoriakoki babestuek maila guztietan. Praktikan, aldiz, ezerezean geratzen da errekonozimendu hori eta ez dira errekurtoak bideratzen hezkuntza elebiduna edo gainontzeko oinarriak ipini ahal izateko.

"Heziketa elebiduna etxeetako korridoreetan sortu zen: herrietako haurrak eta nerabeak, baita nagusiak ere –oso gaztetan ezkontzen zituzten neskek, ugazaben bortxaketak saihesteko ahaleginean–. Auzolanean eraikitako udaletxeetara aldatu zen gero; estatua zergak kobratzera baino ez zen agertzen bertan. Heziketa errebol-tari hau ez zen batere formala; haurrak ez ziren gela itxietan gordetzen, komunitatearen esparru zabaletan tartekatzen ziren bertako bizitzaren bitartez, gure ama-hizkuntzan eta gure mundu-ikuskeran hezi zitezen. Arrazionaltasuna ez zen nagusitzen: errituak, mitoak, sinbo-loak eta filosofia indigenaren gainontzeko osagaiak harekin batera zetozen" (Yaku Pérez, *Reforma Educativa y Etnocidio Cultural*. ECUARUNARI, 2019 liburua).



JUAN GOROSTIDI



Astebete nuen tartean, eta udal liburutegira hurbildu nintzen haren liburuak irakurtzera. Abokatua izanda, justizia indigenaz idatzia zuen bere libururik ezagunena, 500 orrialdetik gorakoa; baina baita beste hainbat, uraren defentsaz edo etnozidio kulturalaz besteak beste. *La Resistencia* ("Erresistentzia") argitaratu berria oparitu zidan elkartu ginenean. "Hau beste mundu bat da", saihetsezina nuen pentsatzea. Zelako baldintzak bete beharko nituzkeen European edo Euskal Herrian Azuay-en pa-

**HARRITU NINDUEN
GAZTEEN HITZEN
TONUAK,
HELDUTASUNAK;
ONDOREN, KOLOREZ
BETERIKO MANDALA BAT
OSATUZ, PARE BAT ORDUZ
LUZATU ZEN ERRITUA**

reko eskualde bateko (Nafarroako zabalera, miloi inguru biztanle, Ekuadorreko hirugarren hiriburua duena...) lehendakaria elkarrizketatzeko?

Amerika osoan bezala, euskal abizenek jositako inguru hura ere. Zabala ezpatariaren balentriak eta heriotza kontatzen dizkizute, eta ohikoak dira Otxoak, Larreak, Luzuriagak. Eta Agirreak, nola ez. Inguru hauetan ibili baitzen Araotzeko heroi ala antiheroi zoratua, Gaztelako enperadore Felipe II.a ahalguztidunari aurre egin ziona "El Dorado"



JUAN GOROSTIDI



JOSE PEREIRA

lurralde ametsezkoan galdu eta Peruko erregeordetza konkistatzera abiatu bitartean. “A, euskaldunak!” erantzuten dute harrituta abizen haien jatorriaz edo esanahiaz zerbait esaten diezunean.

Airean zintzilik bezala geratu ziren inpresio bortitz eta goxoak; nire jarrera, hiru kokaleku horietatik –indigenena, euskal kolonoena, misiolariena– hurbilen zein ote zegoen galdezka. Artean, hangoek doan eskaini zizkidaten modu soilei eta medizina indartsuei beren lana egin zezaten utzi nien.

2019KO URRIKO ALTXAMENDUA EZINEZKOARI AURRE EGIN ETA POSIBLE DENA ERAIKI

Zortzi hildako, 1.340 zauritu, 1.192 atxilotu eta 883 dekretua, indargabetua. Hauxe litzateke zifra hotzetan, urriko hamaika eguneko altxamendua-ren balantzea Ekuadorren. Baina ez da gehiegi arakatu behar beste zerbaiten arrastoak antzematuko. Alfer huts gisa (“erlaman-doak!”) presidenteak irainduak izan ostean, urriaren 13ko irudi bat nabarmendu zen guztien begi bistan: mugimendu indigenaren ordezkariak estatuko botere nagusien aurrean herri oso baten hitza ordezkatzuz eta haien eskakizunak betearaziz: ez soilik neurri ekonomiko onartezin batzuk atzera botaz, nazio aniztasuna zer den ere adierazpide garbiz erakutsiz.

Hau ez da, inondik ere, garai-pen erabatekoa. Ez dakigu nola bideratuko dituen orain estatutak Nazioarteko Diru Funtsak ezarri nahi dizkion errezetak eta etorriko diren eraso berrien aurreko erantzunak. Baina komeni da gogoratzea historia hau ez dela berria. 1992an, Quitoraino 500 kilometroko ibilaldia burutuz, Amazoniako 1’2 milioi hektarea haien ondare izendatzea lortu zuten. 1994ko eta 1995eko mobilizazioek

atzera bota zituzten nekazarien gizarte segurantzaren eta lur komunalen pribatizazioa sustatzen zituzten legeak. 1997an eta 2000n Abdalá Bucaram eta Jamil Mahuad presidente neoliberalen gobernuak erauzi zituzten. Gerora, gauzak katramilatu ziren eta mugimendua zatikatu zen, hainbat gobernuen kolaborazioa eta Rafael Correaren aupatzea tarteko. 2015erako mobilizazioetan argi geratu zen, halere, azkenaren eta indigenen arteko talka, aurtengoan gertatu bezala.

Jatorrizko herriak dira Ekuadorren antolatuenak eta kontzientziatuenak, eta haien legimititatea erabatekoa dela agerian geratu da oraingoan. Inguruko beste lekuetan ez bezala –Kolonbian, Perun edo Bolivian, esaterako– konfederazio bakarrean elkartzen dira han Amazoniakoak eta Andeetakoak, baina horrek ez du esan nahi mugimendu zabalaren baitan ezberdintasunak ez daudenik. Eta hiri nagusietan –Quiton eta, batez ere, Guayaquilen, non kokatzen diren kreoleen oligarkia- ren indar nagusiak– indigenen aurkako oldarrak beldurgarria izaten jarraitzen du.

Orduko konkista, gaurko arpilatzea

Orain 500 bat urte European gertatu zena zenbait osagai-
ren gurutzaketatik eta siner-
giatik konpreni liteke. Ez zen ordu-
ko hemengoa lurralderik aberatsena
edo jendetsuena, baina elkartu ziren
hainbat gertakarik ekarri zuten gero-
ra globalizazioa hitzarekin ezagutu
dugun bilakaera. Horien artean, es-
tatu modernoek sorrera azpimarratu
behar, haien arteko batzuk inperio
bihurtzeko armada eta erakundeak
ahalbideratu zituztenak. Gerora ka-
pitalismoa izendatu dugun sistema
ekonomikoaren zutabeak ere orduan
sartu ziren indarrean.

Esan beharrik ez dago aurkikun-
tza baino –aspaldian zeuden lurral-
de haiek “aurkituak”– konkista izan
zela hura, harrapaketa eta ospi-
laren logikan baino sartzen ez zena.
Oraindik indarrean jarraitzen duen
operazio hark ezagutzen dugun his-
torian inoiz gertatu den sarraskirik
handiena ekarri zuen, eta bertako
biztanle zirenak ezabatuak edo zo-
koratuak izan ziren gerren, epide-
mia berrien eta maila guztietako ja-
zarpenen ondorioz. Ipar Amerikan,
13 milioi inguru ziren jatorrizko
biztanleetatik, milioi batera murriz-
tu ziren bost mendetan.

“Urrearen sukarra” hedatu zen
hasieratik, eta zilar meategietan
galdu zuen bizitza milaka jende-
k. Konkistaren enpresa finantzatze-
ko ezinbesteko ziren ondasunak
Ameriketara bilatu ziren, eta on-
dorengo metaketa kapitalistaren-
tzat baliabide agortezintzat hartu
ziren. Horretarako, “indioak” ere
gizakiak zirela onartu ostean, es-
klabutzara izan ziren behartuak.
Meategietako eta plantazioetako

gogortasuna ezin jasan eta eskulan
indartsuagoa eta sarriagoa behar
izan zenean, Afrikan ehizatu eta ga-
rraiatu zituzten esklaboak, “gara-
penerako” naturaltzat hartzen zen
jokamoldearekin jarraituz.

**MEATZARITZAK
JARRAITZEN DU
JATORRIZKO HERRIEN
LEKU-ALDAKETEN,
POBREZIAREN,
UTZIKERIAREN ETA
BAZTERKETAREN
MUINEAN EGOTEN,
JOAN DIREN MENDEETAN
BEZALAXE**

MEATZARITZA AZKEN HAMARKADETAN

Lur emankorretatik mortuetara
izan ziren behartuak jatorrizko biz-
tanleak, haranetatik mendietara.
Gerora, beste maldizio bat jaso dute
indigenek: mortu haien edo oihan
sakonen lur azpiak petrolio, urrez,
kobrez, uranioz, ikatzez edo nikelez
aberatsak izatea.

AEBetako ikatz-gordekinen he-
rena eta uranioaren erdia indioen
erreserbetan dago. 1887an AEB-
tako Kongresuak onartutako *Allot-*
ment Act-ak (Adjudikazio Akta)
markatu zuen azken hamarkade-
tako irizpidea: “Jabetza komunitarioa
arriskutsua da enpresa librearen
garapenerako” deklaratu zen. Gauza



bera gertatu zen beste muturrean.
Txilen, esaterako, maputxeak des-
jabetuak izan zirenean. Desjabetze
hauek “erosketa” moduan ere izan
dira estaliak batzuetan, New Yor-
keko estatuko lurralde osoa mila
dolarren truke “erosia” izan zenean
bezala, 1797an.

Ekuadorreko Amazonian petro-
lio 70eko hamarkadatik ustiatzen
da. Waoraniak desjabetuak izan zi-
ren, ordainetan ezer jaso gabe. Gau-
za bera gertatu zen Peruko asha-
ninkekin edo Brasilgo jatorrizko
herriekin, bertan abeltzaintzara
zuzendutako laboreak hedatze al-
dera. Yanomamiak, Venezuela eta
Brasilgo indigena zabaldueneta-
koak, desagertzen ari dira: urrez
eta eztaiz aberatsak dira haien



lur-azpiak. XX. mende hasieran 15.000 omen ziren nambikuarak Mato Grosso, 100 bat dira egun. 80ko hamarkadan Vietnamgo gerran famatu zen “agente laranja” defoliantez bonbardatzen zituzten haien bizi-eremuak.

AZKEN MENDEETAKO BILAKAERA

Arpilatze historia hori ez zen aldatu XIX. mendean gertatu independentzia prozesuetan eta, funtsean, berdin jarraitzen du XXI.ean. Eguneroko kontuak ditugu lurren suntsiketarak, hilketarak. Aldi berean, Ekuadorreko azken konstituzioak, 2008an onartutakoak,

“Naturaren eskubideak” aldarrikatzen ditu eta kapitulu oso bat eskaintzen dio bertako hamalau nazionalitateko lurren, identitateen eta eskubideen errespetuari, hogeita bat kapitulutan. Hitz ederak, ekintza ustelak. Azken hamarkadetan, errazagoa da lur azaleko nahiz sakoneko ondasunak antzematea, eta haien ustiaketa urte gutxitan burutzen da, ondorio larriak ekarri: lur mortuak, biztanleria desjabetuak eta desegituratuak, kontaminazio itzela inguru zabaletan. Garai bateko muga teknikoak gaudituak dira egun, eta lehenagoko hamarkadak eta lan-indar

YASUNI LEKU TXIKI BAT HERRIALDEAREN KONTZIENTZIAN

Yasuni (“Lur sakratua” waorani hizkuntzan) Ekuadorreko Amazonian kokatua den parke naturala da. Bertan bizi dira Waorani, Taromenani eta Tagerai herriak, joan den mendeko 60ko hamarkadara arte kontaktatu gabekoak, eta egun beren bizimoduak aurrera eraman ahal izateko ofizialki errekonozituak direnak. Inguruaren bioaberastasunaz jabetu gaituzen, aski da esatea bertako hektarea batean landare barietate gehiago bizi dela Ipar Amerika osoan baino. Baina petrolioa dago haien lur azpian, eta egin dira zenbait ustiaketa azken hamarkadetan.

Haien eragina pairatu ostean, ustiaketa berrien atzerapena sustatu zuten bertakoek, eta garapenerako beste eredu bat martxan jartzeko indarrak bideratu –baita nazioarteko programa zehatz baten bidez ere–. 2008an Rafael Correa presidentetzara heldu zenean, bide hori errespetatuko zuela agindu zuen, baina berehala bidaiatu zuen Txinara eta inguruko lurraldetara diru bila, kontzesioen truke. 2013an deklarazio solemnea zuzendu zion “Nazio osoari”, Yasunitik aterako ziren ondasunak ezinbesteko zirela “Ekuadorreko pobrezia-ekin amaitu ahal izateko” baieztatuz. Gazteak ziren mezu haren helburu nagusia baina, modu harrigarrian, gazteak izan ziren herrialde osoan haren aurka manifestatu zirenak. Mugimendu horrek eragina izan zuen “correismoaren” baitako lehen arrakala nagusian.

Ordutik hona eta “Yasunidos” izenpean (yasunidos.org), mugimendu zabala dago antolatuta jatorrizko herri haien eta beren medioaren defentsan Ekuador osoan. Eskerrik asko Kléver Calle, Yasunidoseko kideari.

*Eskerrik asko Kléver Calle,
Yasunidoseko kideari*

handia behar baziren, urte gutxian eta jende apurrarekin gauzatzen da gaur ustiaketa. Alde gutxi dago, horretan, herri "atzeratuen" gobernuak progresisten ala kontserbadoreen eskuetan egotea; Venezuelako nahiz Brasilgo, Argentinako nahiz Ekuadorreko meatzaritza ministroak Torontoko urteroko feria nagusian elkartzen dira nork zein multinazional erraldoiri bere ondasun mineralak salduko.

Itxuraldaketa bat gertatu da azken hamarkadetan mehatze-erazketaren inguruan, globalizazioaren hedatzearen arabera. Gero eta zorpetuagoak diren estatuek haien ondare minarekin ordaintzen dute zorra, oraina nahiz etorkizuna hipotekatuz. Nabarmenezkoa da Txinaren jokamoldea Afrikako eta Hego Amerikako estatuetan: metal preziatuen ustiaketa lortzen dute kredituen truke. Lurralde atzeratuen garapenerako irtenbide gisa aurkezten dira akordioak, baina esperientziak beste errealitatea erakusten du. Oxfam Americak 2010ean

Munduko Bankuko ekonomialariak aipatuz argitaratutako informea kategorikoa da maila horretan: "Ikertu ditugun 95 lurraldeetan, 1970 eta 1990 artean, zenbat eta handiagoa den ondasun naturalen esportazioe-kiko dependentzia, orduan eta geldoagoa da Barne Produktu Gordinaren hazkundea". Lehen pobreak ziren inguruak, pobreago bilakatzen dira ustiaketaren ostean. Ekuadorreko kasuan eta 2009an onartutako meatzaritza legearen arabera, onuren %5a estatuarentzat izatea onartzen da, gainerako %95a enpresa multinazional ustiatzailearentzat utziz. Sortzen den enplegua oso kalitate eskasekoa izaten da eta epe laburrekoa. Beste sektoreekin alderatuz, meatzaritza da enplegu gutxien sortzen duena: milioi dolar bakoitzeko inber-

tsioak 0'5 eta 2 arteko enpleguak sortzen ditu gainontzeko aktibitateen -manufakturarene, nekazaritzaren, zerbitzuen...- oso azpitik. Erdialdeko Amerikan, Argentinan edo Txilen, lurralde pobretuenak dira meatzaritzara dedikatuak. Hori guztia konpentsatzeko, ohikoak dira "pobreentzako bonoak", meatzaritza edo petrolioaren irabaziekin finantzatuak: "Bolsa Familia" Brasilen,



LIBURUAK

Yaku Perezek idatzitako liburuak dira ezker-eskuin agertzen direnak.

“Renta Dignidad” Bolivian, “Bono Solidario” Ekuadorren, “Chile Solidario” eta abar. “Pobreziaren desagertze bidean” daudela erakusteko baliagarriak.

Ingurumenaren kalteak neurtezinak izaten dira. Iparretik hegora: Kanadan hezeguneen laurdenak desagertu ziren 1980-1990 bitartean; Ontarioko lakuan –AEBen eta Kanadaren arteko bost laku handietako bat– debekatuak dira arrantza eta bainua... Drainatze azidoa da meatzaritzaren arazo orokorretako bat. Berez azidoak diren lurraldeetan –Andeak dira horietakoak– biderkatu egiten da arazoa. AEBetan eginiko ikerketetan meatze-ustiaketen %76etan osasunarentzat kaltegarri diren neurriz gaineko kobre, kadmio, berun, merkurio, nikel, zink eta zianuro kantitateak aurkitu dira. Eta “puntako teknologiaz” ari gara kasu hauetan. Urrearen erauzketa da horretan muturrenetako bat, zianuroa erabiltzen baita prozesuan: ontza urre baten zatitza –ezkontza-eraztun bat egiteko behar dena– 8.000 litro ur erabiltzen dira, beharrezko diren 250 tona mineral garbitu ahal izateko.

Meatzaritzak jarraitzen du jatorrizko herrien leku-aldaketan, pobreziaren, utzikeriaren eta bazterketaren muinean egoten, joan diren mendeetan bezalaxe. OCMAL (“Amerika Latinoko Meatzaritzaz Gatazken Ikuskaritza”) erakundearen arabera 120 gatazka daude zabalik bertako komunitateak eta gobernuen eta meatzari enpresa ustiatzaileen arteko aliantzaren artean. Peru bezalako lurraldean, Herriaren Defendatzailearen aburuz, gatazka sozialen erdiak gai honen ingurukoak dira.

KIMSAKOTXA

UR EMARIAK MEHATXUPEAN



Paramoa” deitzen zaie Ekuadorren 3.500 eta 4.000 metroko altuerako lur eremuei. European ez bezala, badira basoak bertan, altura horietan baino hazten ez diren zuhaitzekin, eta oso aberatsak dira faunan eta floran. Baina haien ezaugarriarik nabarmenena ura jasotzeko eta hedatzeko ahalmena litzateke, ur gordailu eta emari nagusi bilakatzen baitira eremu oso zabalerako. Kimsakotxa (“hiru urmael” kitxua hizkuntzan) da horietako bat, Ekuadorreko Azuay departamentuan kokatutakoa, Cajas Parke Naturalaren baitan. Parajea zoragarria da; ez hiru, baizik eta 30 urmael ditu eta ura nonahi, eta inguruko haranak, nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi direnak, ur emari haietatik elikatzen dira. Cuenca hiriburuko hiru ibai bertan jaio dira, halaber.

Haren zorigaitza: urre mineralak duela bere errailetan, sakonera handian. Orain arte ustiatu gabekoa baina esplo-

tazio intentsiborako planen mehatxupean bizi dena azken urteotan. Esan gabe doa ustiaketa intentsibo hauek inguru guztiaren oreka suntsituko luketela, eta kontzientzia horrek eraman ditu inguruko herriak galdeketa antolatzen. Giron herrikoa izan zen joan den udaberrian arrakastaz antolatu zen horietakoa eta horrek bultzatu zuen, baita ere, Yaku Perez prefektu kargurako hautatua ateratzea. Haren egitarauan, uraren defentsa dago leku nagusian eta bere asmoa da galdeketa loteslea antolatzea Azuay osoan meatzaritza intentsiboaren inguruan. Bere bi lehen ahaleginak atzera bota dituzte, ordea: Azuay lurraldeko alkateen kontseiluan ez zuen behar adina-ko gehiengoa lortu eta gero, Ekuadorreko Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuen egitasmoa, joan den irailean.

Handik egun gutxira gertatu zen indigenen azken altxamendua.



YAKU PEREZ GUARTAMBEL

CUENCA, 1969

Yaku Perez Guartambel abokatua, irakaslea eta idazlea (Cuenca, 1969) Ekuadorreko Azuay departamenduko prefeta hautatu berria da. Lehen aldia indigena bat kargu honetarako hautatua dela eta, are gehiago, haren programaren puntu nagusia “Uraren defentsa” izan denean. 1972an sorturiko ECUARUNARIko (Ekuadorreko Kitxua Herrien Konfederazioa) buruzagia izan da 2013tik hona, prefekturarako hautagaia bilakatu zen arte. Erakunde hori CONAIE-ko parte da, Ekuadorren joan den urrian gertaturiko mobilizazioen bultzatzaile nagusi bilakatu dena, estatuko aginte nagusiak negoziaketa publiko batera bultzatu eta Nazioarteko Diru Funtsaren aginduz gobernuak onarturiko dekretua deuseztatzeraren eraman duena.

Elkarrizketa hau joan den abuztuan egin zen, Yakuk lau hilabete karguan zaramatzala. Bere soldata erdira murrizteaz gain, asteko bi egun osorik erabiltzen ditu elkarrizketa eskatzen dion edozein talderekin hitz egiteko. Ez dut langarik topatu egun horietako batean ni ere errezibitu nagan.

Yaku Perez Guartambel, Azuay departamenduko prefeta

“Hirugarren baga bat dator, jatorrizko herrien ikuskeratik sortzen ari dena”

■ **Uraren defentsa ardatz hartuta egin zenuen prefekturarako kanpaina, gainontzeko gaiak, garrantzi handikoak –azpiegiturak eta garapen ekonomikoa, tartean– lehentasunen artetik aterata. Baina irabazi eta berehala, zure alde zegoen jendeak ere maila guztietako arazoek konponbideak jarri dizkizu mahai gainean. Nola pentsatzen duzu bi ildo horiek elkartzeko?**

Ulertu behar da “Uraren defentsa” ez dela ondasun edo errekursu natural baten defentsa hutsa. Ura dago milaka urtetan ezagutu dugun eta egun indarrean irauten duen munduaren erdigunean. Ur-emarien suntsiketak mundu oso batena ekarriko luke. Ez soilik paisaia batena, ibaiena eta abar. Ez gara ekonomiaz edo ekologia hutsez ari; bizitza, lana, harreman komunitarioak ulertzeko modu batez ari gara... Horretaz gain, bistakoa da inbertsioak behar ditugula azpiegiturak garatzeko eta gure jendearen egunerokotasuna hobetzeko. Horretarako beharko lirateke, esate baterako, estatuak zor dizkigun [Azuay departamenduari] 50 milioi dolarrak, enpresa hidroelektrikoengatik dagozkigunak, ezinbestekoak hainbat proiektu publiko garatzeko. Bortere handien propagandaren aurka, gauza asko garatu litezke –nekazaritzatik turismora, ekonomia

jasangarriaren ereduari jarraituz –estraktibismoaren suntsiketak ezinezko bihurtuko lituzkeenak–.

■ **Meatzaritzaaren aukerak daude polemika honen guztiaren erdian, eta Ekuadorrek, petrolioaren ustiaketa hasi zuenetik –azken lau hamarkadetan modu intentsiboan, estatuaren diru iturri nagusia bilakatuz– bere garapen ekonomikoaren motor nagusi kontsideratzen du. Posible al da meatzaritza arduratsu bat?**

Printzipioz, ez gara meatzaritzaaren kontrakoak. Aurre egiten diogu Kimsakotxa bezalako ur emarien gunetan edo Amazonia bezalako parajeetan meatze-ustiatetari. Kontinente honetan, eta baita mundu mailan ere, ongi ikeritua dago gaia: ingurune oso baten suntsiketa konpongaitza sos batzuen truke –multinazionalen erabaten dituzte irabazi nagusiak–; lanpostu urri eta prekarioen sorrera eta ehundura sozialaren hondamendia... Ekuadorren ez dago baldintza onetan egin litekeen meatzaritza ustiatetarik, horregatik eskatzen dugu moratoria ustiaketa proiektu berriei dago kienez. Azkenak, azken presidentek [Rafael Correa] sekretupean txinatarrekin sinatutako kontzesioak, gure sistema hidriko osoa arriskuan jartzen dutenak.

■ Ameriketako jatorrizko herrien erresistentzia kolonizazioaren garaitik dator, eta zure azken liburuaren izenburuak berak horretaz dihardu [*La Resistencia*, (Erresistentzia)], baina azken hamarkadetako testuinguruan kokatu nahiko nuke eta, gainera, europar baten begiradatik. XX. mendearen bigarren erdian jaiotakoek, bi бага nagusi antzeman ditugu azken hamarkadotan. Lehenengoa “altxamendu armatuena” izan zen, Gerra Hotzaren garaia zen eta deskolonizazio prozesu zabal bat ari zen gertatzen munduan zehar. Kubako iraultza garaitu zen eta, ondoren, Erdialdeko Amerikatik hego muturreraino, gerrillak nonahi. Bigarren bagari, “populista” deitu diote askok: matxinada armatuen ideia alde batera utzi eta estatuen agintaritza politikora lehiatu ziren hainbat mugimendu zabal, ordura arteko oligarkia ahalguztidunei gaina hartuz

Brasilen, Uruguain, Bolivian, eta abar. Ekuadorrek “historia modernoaren presidentetza luzeena” izan zuen Rafael Correarekin (2008-2017), бага “progresista” horren baitan, eta egungo presidentek berak [Lenin Morenok] haren bultzadaz lortu zuen kargua. Baina dezepzio handi baten historia ere bada azken urte hauetakoa. Pentsa liteke hirugarren бага baten baitan gaudela egun, aurrekoen ezaugarrietatik bereizi litekeena?

Correarena, modu leun batean esanda, hamarkada galdu bat izan da. Herritarren sostengu zabal batez ailegatu zen lehen agintal-

dira, baina errepublikaren historian izan den gobernurik ustele-netakoa garatu du, saldukeriaz eta modu totalitarioan. Aipatzen duzun testuinguru zabal horretan, esan genezake betiko eskui-nak nahiz ezker tradizionalak ez diotela erantzun egoki bat eman jendartearen beharrei. Biak kolonialak direlako, agian; harrapaketa eta menderakuntza dutelako lege; patriarkatua, merkantilismoa, kapitalismoa. Eskuina betidanik izan da itxiagoa, atzerakoia, kolonoen oinordekoa inguru hauetan, oligarkikoa; eta ezkerre jendearen esku-bide zapalduen izenean altxatu da baina, boterea ukitu duen bakoitzean, modu bertsuan urratu ditu eskubide horiek. Eskubide ukatu eta urratu horien artean funtsez-koenak dira naturarenak. Hankaz

LARRIALDI OROKOR BATEN AURREKO ERANTZUN SUSTRAITUA DA JATORRIZKO HERRIOK LANTZEN DUGUNA





ELKARRIZKETA. Lan honen egile Juan Gorostidi elkarrizketaren une batean.

gora dabilen munduan bizi gara: “Giza Eskubideak” hitzartu ziren, baina ez oraino Ama Naturarenak. Ikusmolde antropozentrikoak bizi gaitu, errealtate kosmozentrikoa ahaztuz. Eskuindarrak, liberalak, neoliberalak, modu askotariko diktadurak, ezkerreko erregimenak eta gobernuak; progresistak nahiz atzerakoiak... entzungor dira jendartearen oihu desesperatuarekin... Eta bai, nik ere antzematen dut hirugarren baga hori, jatorrizko herrien mundu-ikuskeratik sortzen ari dena. Ekologiarekin sentibera dena, nahitaez; lehen ekologistak jatorrizko herriak izan baitziren; Ama Lurra objektu gisa ulertu beharrean, Lehen Sortzaile gisa kontsideratzen zuten, eskubidez jantzia. Jatorri judu-kristaua duten zibilizazioetan ez bezala, hortik dator gurean maitasunez ohoratzen dugun Ama Lurrarekiko begirunea. Haiek –berdin Biblian ala Koranean oinarrituak izan– luraren menderatzeaz ari dira lehen hitzetik, erauzi eta ustiari behar den objektu inerte batez. “Aurrera-

bidearen” izenean, ezker zaharra nahiz berria ez da ildo horretatik desbideratu, funtsezko ikusmoldeak daude hemen talka egiten.

■ **Zu, mugimendu indigenistatik zatoz, “Abya Yalako jatorrizko herrialdeen” defentsa eta bultzadatik [“Abya Yala” da Amerika bezala ezagutzen dugun kontinentearentzat hango jatorrizko herriek aldarrikatzen duten izena]. Ohikoa da pentsatzea herri indigenek borroka defentsiboak eramaten dituzuela aurrera baina, “hirugarren baga” horren baitan, munduaren krisi orokorraren aurreko aterabide orokor bat ari zarete formulatzen...**

Gurea ez da gutxiengo baten esku-bideen aldeko borroka hutsa. “Indigenez” ari direnak maiz jausten dira ikuspuntu arrazista eta kolonialistan. Larrialdi orokor baten aurreko erantzun sustraitua da guk lantzen duguna.

■ Orain egun gutxi hemen gertuko Girón herrian lau egunez bildu ziren berrehun bat gazteen amaierako ekitaldian egoteko aukera izan nuen eta bi kontu egin zitzaizkidan deigarri. Lehen, haien azken komunikatuaren heldutasuna. Bigarren, jardunaldiak amaitzeko ospatu zuten erritua. Zeure liburu eta hitzaldietan ohikoa da “Izpiritu” hitza, European errebindikaziozko ohiko esparruetatik urruti dagoena, are gehiago mugimendu erradikal edo iraultzaileen baitan. Zuen diskurtsoari erreparatuz, deigarria zait mundu-ikuskerak bat berrikusten duen osagarri hori, herri azpiratuen tradizioa eta identitate kolektiboaren birsortzera doana. Eta hori, “indigenismoa” alternatiba global gisa aldarrikatzen ari zaretenean, erritoak, zeremoniak, antzinako mitoak egunera ekarriak... Niretzat berriena ez da hainbeste hori guztia, baizik eta horren guztiaren politizazioa. European bereizita bizi baititugu, hemen ez bezala...

Beti dago mundu-ikuskerak bat edozein eredu sozial edo politiko baten oinarrian. Europa modernoa, erreinu mineralaz, erreinu begetalaz eta animalien erreinuz aritzen da, baina ahaztu egin du funtsezko laugarren erreinua, izpiritua-ren erreinua. Guretzat lau zenbakia sakratua da: Unibertsoaren lau indar, Txakana-ren [Hegoaldeko izarra, indigenen sinbolo nagusia] lau ateak, lau norabideak... Hemen indarrean zeuden laugarren erreinu horren adierazpenak baina, europarrak heldu zirenean, haien aurreiritzian kabitzen ez zirenez, kriminalizatu egin zituzten, deabrutu; sorginkeriatzat, aztikeriatzat, suntsitu beharreko atzerapentzat har-



ERREPRESIOA. Prefeta gisa hautatu aurretik bost aldiz atxilotu zuten Yaku Perez hainbat borrokan aritzeagatik.

tuz, eta antzera jarraitzen dugu. Konkistatzaileak ulertu ezin duena, ikusezin bihurtzen du, eta gupidagabe pertsekutatu. Baina izpiritualtasunik gabe ez legoke emoziorik; ez sumindurarik ezta zorionik ere. Guretzat begi-bistakoa da harria edo ura bizidunak direla, izpirituz beteak. Sentiberatasun horretatik pizten da gure kontzientzia ekologikoa, eta gazteen artean orokortzen ari dena hortik ere sortua dela iruditzen zait.

Eredu oso sakonen arteko talka batez ari garela iruditzen zait, eta zuen ikusmoldearen aurkako indarrak inoiz baino handiagoak direla. Halere, hemen sumatzen dudana erresistentzia motak badu zerbait nire eskemetatik kanpo geratzen dena. Non dago zuen indarraren iturburua, non zuen esperantzarena?

Esperientziak esaten dit ez dagoe-

la ezinezkorik. Orain hogeitaz batzuen ameskeria zirudien herri-galdeketa bat planteatzea multinazional txinatar handi bati aurre egiteko Kimsakotxan, eta gertatu berri da. Komunitarismoa edo biozentrismoa izenekin adierazten duguna azaleratzen denean, muga ideologiko zaharrak gaingintu egiten dira... hori kapitalismoaren, sozialismoaren ala komunismoaren esparru ideologikoen gainetik suertatzen ari da. Ez diet aurreko ahalegin askatzaileei uko egiten, halere; baina onartu behar motz geratu zirela jatorrizko herriak begiratzeko orduan, genero auzian, naturaren eskubiak ulertzerakoan.

Horrexegatik sortzen dira proposamen berri hauek, ez direnak eskema itxi batzuetara murrizten; ikusmolde zabal, ireki, interkultural eta plurinazional batez elikatzen dira. Ez gara sektarioak, ez gara "indigenistak", hitz horrek

izan duen zentzu murriztailean. Eta hortxe bertan pizten dira esperantzak, ametsak, utopiak... gazteen bultzada batengatik. Horiek gabe ez goaz inora. Gazteak jabetzen ari dira larrialdi klimatikoa zibilizaziozko larrialdi bat dela. Eta berezko duten irreberentziak, ausardiak hausten dituzte eskema eta eredu zaharkituak eta kalean daude Yasuniren defentsan, Tipnisen defentsan, Amazoniaren defentsan eta, beste behin, bestelako mundu bat posible dela irudikatuz. Ikusmolde berria da: ekintza txikiak sustatuz eragin globalak izango direla uste duena; hemen edo Indian uraren defentsan ari garenean Himalayan du eragina; Danubio ibaiari gertatzen zaionak ondorioak ditu Madagaskarren. Ezagutza zientifikoa eta antzinako mitoak eta erritoak, haien ikonografia indartsuarekin bat datozenean, posible da gazteekin eta haiek diren esperantzarekin elkartzea. ●

Eskuratu 2020 EGUTEGIA



+4€ BIDLAKETA GASTUAK

Historia gurea da,
jendearena.
Gogoratu, partekatu
eta zabal ezazu
egunero ahaztu
behar ez den mundu
zati bat. ARGIArekin
egunero efemeride bat.

AZOKA.ARGIA.EUS
943 37 15 45

